


'Txinaurriak', rockaren bidezko omenaldia



Proiektuan parte hartu duten hainbat musikari, Marisol Bastidarekin batera. ARGAZKIA: JAVI COLMENERO

ambiguous & clothing
A very unexpected
BOUIL'HOT ART SHOW!



3 Abendua
Diciembre
NOVENTA GRADOS 20H

Ambiguous-ek eta Noventa Grados-ek, lamonoren eta Lokaliriren laguntzarekin, ur poltsa bero kustomizatuen erakusketa ibiltari kolektiboa aurkezten dute.

Ambiguous y Noventa Grados, con la colaboración de lamoño y Lokalirri, presentan la exposición colectiva itinerante de bolsas de agua caliente customizadas.

Egitaraua / Programa / Programme:
20h Noventa Grados, Dj Chucklee (Donostia)
00h Arraun, Dj longofrolo (Donostia)

nouenta grados

Arropa, oinetako eta osagarrak, Autó-bildak, Illeaindegia, Maikillajea eta kosmetika, Disenitzio panpinak, Liburu eta aldiizkaria, Musika, Arte artea, Ropa, calzado y complementos, Joyas de autor, Peluquería, Maquillaje y cosmética, Art toys, Libros y revistas, Música, Espacio creación.

Kale Nagusia 3 Calle Mayor 3 20003 Donostia San Sebastián
943 42 07 60 info@noventa-grados.com
www.noventa-grados.com



DAMART

lamono

Gipuzkoa

LOKALIRRI

liquidDocs

ARRAUN

'MIKEL LABOARI IKASITAKO KANTUAK' AZPITITULUA DUEN DISKO KALERATU DUTE

Guztira, 19 abestien bertsioak grabatu dituzte Euskal Herriko hainbat taldek Bidehuts kolektibo esker

JUAN G. ANDRÉS

DONOSTIA. Atzo bi urte bete ziren Laboa hil zela. Bidehuts kolektiboko kideek bigarren urtemuga aprobaetxatu zuten azken omenaldia aurkeztek. Binilo eta CD bikoitza da, *Txinaurriak* izenezko, eta musikarien 19 kantaren bertsioak ditu, Euskal Herriko beste hainbeste taldeek grabatuta. Lanaren azpititulua aski grafikoa da: *Mikel Laboari ikasitako kantuak*. Izan ere, "maitasunak eta errespetuak bultzatutako" proiektua da, barruko kaierak dioenez. "Amodioa da guk jaso duguna, horregatik ez da zaila izan diskon hori guztia islatzea", esan zuen Carlos Osinaga Bidehuts eta Lisabö taldeetako kideak.

Dirudienez, zailena banda protagonisten izenak aukeratzea izan zen. "Baten batek zenbait talde botako ditu faltan, baina muga bat jarri behar genuen", aipatu zuen. Besteak beste, Willis Drummond, Berri Txarrak, Xabier Montoya, Zura, Ama say, Ruper Ordorika, Lisabö eta Atom Rhumba taldeek hartu dute parte ia urtebetean garatu den proiektuan. Bakoitzak bere kanta aukeratu zuen (*Liluraren kontra, Baga biga higa, Aintzinako bihotz, Gure bazterrak...*) eta bere eremura eraman, jatorrizko abestiaren esentziari eutsiz. "Rock ikuspuntutik" egindako omenaldia da, beraz, *Txinaurriak*.

Lanaren arduradunak eskerrak eman zituzten behin eta berriro: eskerrak Laboaren familiari, parte hartzaileei eta disko aldez aurretitik erosi zutenei. Lisaböko Enekok gogoratu zuenez, proiektua aurrera eraamateko oztopo nagusia arazo ekonomikoa zen. Hori dela eta, urrian jarri zuten salmentan bukatu gabe zegoen lana, eta jendearen erantzuna izugarria izan zen. "Ekarpen hori ezinbestekoia izan da disko mahai gaineratu zuen.

Diseinuaz Ramon M. Zubalegi arduratu da eta eskuz egindako

marrazkia sortu du portadarako. "Ez badirudi ere, txinaurriak dira aza-lekoak, baina dekonstruituta daude, abestiak bezala", bota zuen.

Atzoko agerraldia Donostiako Kafe Antzokian egin zuten, Laboaren Antigua auzoan. Han elkartu ziren diskoan parte hartu duten zenbait lagun. Marisol Bastida alarguna Josetxo Silguero musikariarekin agertu zen. Onartu zuenez, oraindik ez du astirik izan lan guztia osorik dastatzeko, baina entzun dituen kantak gustuko izan dituela adierazi zuten Bidehutsekoek.

Txinaurriak zuzenean ez dutela aurkeztuko iragarri zuten, talde guztiek egun berean biltzea eromena izango litzatekeelako, baina etorkizunean dokumentala osatuko dute grabazioaren irudiekin.

19 KANTAK

CD 1

1. **Willis Drummond.** *Gaztetasuna eta zahartasuna*.
2. **Hotel + Miren Iza.** *Não es tu, faculdade de sentir*.
3. **Berri txarrak.** *Liluraren kontra*.
4. **Xabier Montoya.** *Xoxo Beltza*.
5. **Zura.** *Haize hegoa*.
6. **Amodio.** *Baga biga higa*.
7. **Anari.** *Aintzinako bihotz*.
8. **Dilistak.** *Negu hurbila*.
9. **Akauazte danok.** *Txoria txori*.

CD 2

1. **Ama say.** *Ama hil zaigu*.
2. **Ruper Ordorika.** *Gure bazterrak*.
3. **Lisabö.** *Gure hitzak*.
4. **Gabon Caligula.** *Kirru*.
5. **Inoren ero ni.** *Langile batzen galderak liburu batzen aurrean*.
6. **Atom Rhumba.** *Lizardi*.
7. **Gora Japon.** *Bedeinkatua*.
8. **Audience.** *Lili bat*.
9. **Komunikazio-inkomunikazio.** *Borrokoan*.
10. **Mursegó + Eten.** *Zaude lasai*.

MÚSICA > Abierto el plazo para el concurso de grupos locales que optarán a participar en el próximo Heineken Jazzaldia

El Heineken Jazzaldia de Donostia volverá a incluir en el programa de su próxima edición a diez grupos locales. Los interesados en participar deberán enviar a la organización, antes del 10 de enero, un material compuesto de música grabada y documentación que están especificadas, junto a las bases de este proceso de selección, en la web www.heinekenjazzaldia.com. Entre todas las propuestas recibidas, la organización seleccionará 15 grupos aspirantes que actuarán en clubs y recintos de la ciudad entre enero y abril de 2011. Tras esas actuaciones, el comité organizador del Heineken Jazzaldia tendrá en cuenta la reacción del público que asista a las actuaciones y escogerá a los diez incluidos finalmente en el programa. >E.P.

CORO > El Orfeón Donostiarra cantará en Madrid durante la Jornada Mundial de la Juventud en agosto de 2011

El Orfeón Donostiarra cantará ante jóvenes de todo el mundo el próximo mes de agosto durante la celebración de la Jornada Mundial de la Juventud (JMJ) Madrid 2011, en virtud de un acuerdo firmado con el comité organizador de la Jornada. De esta forma, la agrupación coral donostiarra, que actualmente está compuesta por más de 170 voces dirigidas bajo la batuta de José Antonio Sáinz Alfaro, actuará frente a los 210.987 jóvenes que ya se han inscrito en el evento, al que asistirá el Papa. La rueda de prensa para presentar este acuerdo se celebrará mañana en la sede de la Fundación Pons y estarán presentes el obispo auxiliar de Madrid, César Franco; el obispo de San Sebastián, José Ignacio Munilla; el presidente del Orfeón, Jose Mari Echarri y el director de la coral, José Antonio Sáinz Alfaro. >E.P.